

## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Zer iritzi



UXUE APAOLAZA LARREA

**Z**er iritzi daukazu Afganistango gaur egungo egoeraz? Nola doakio behin Gaddafirena izandako Libiari? Grezia nola dabil Europak salbatu zuenetik? Ei, eta Venezuela? Guaido da Venezuelako presidentea? Irakeko demokrazian nola bizi da jendea? Nikaraguako diktadura hura? Ez da jada? Eta Ukraina? Hirugarren Mundu Gerra eragin behar zuen Ukraina? Non dago gizotasun zahar-berriaren ikur, Zelensky? Testuinguruz kanpo, gai zinateke jada, "Zelenskyk esan du", izena identifikatzeko? Zerk eskandalizatzen zaitu orain? Zeri buruzko iritzi irmoa daukazu?

Jakina da, ez zaigu esaten zer pentsatu bakarrik. Noiz eta nora begiratu behar dugun ere esaten zaigu. Eta, nola ez, gurerako ere garrantzia du nazioarteko panoramak. Eta gurekin zerikusirik ez balu ere arreta jarri behar genioke, humanitate hutsez. Nola ez kezkatu Palestinaz. Noski. Nola ez kezkatu Ukrainan erakutsi zizkiguten irudiez. Umeak ikusten ditugu. Umeek zauritzen gaituzte. Baina Palestina ere itzaliko digute. Eta ez digute piztuko Israelek nahi arte. Eta pizten digutenean, palestinarren ekintzaren bat baloratzeko izango da, ea zer taimainako zigorra merezi duten, zigorra neurrikoa den. Bestela ez ligukete jarriko.

Berez, gatazka horiek guztiak ematen digute aukera geure buruei begiratzeko, baina epaile sentitzen gara, goitik begira. Geure buruei ez begiratzeko diseinatzen baitizkigute. Geure inguruari. Geure arazoei, geure arazoan iturri berari, arazo horien iturri, gu. Begira dezagun itzaltzen digutena, gauzak ez dira egoten argitzen dizkiguten lekuetan. ●

## EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA  
 www.adurlarrea.com


ADUR

## MOTZEAN

**"Zerbitzu publikoen gainbehera nabarmena den une honetan, hala nola, langile eskasia edo ordezkapen falta", greba egin zuten urriaren 25ean sektore publiko langileek EAEn.**

**Beskoitzeko ikastolak hamar urte egin ditu eraikin prefabrikatuetan.**

**Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformak deituta, Hezkuntza Legeak "sistemaren pribatizazioan sakontzen" duela salatu dute Donostian milaka lagunek.**

**Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean 2021etik itxita zeuden lau muga pasabideak ireki dituzte: Hendaia eta Irun artekoa, Aldudetako pasabidea eta Larrain eta Izpegiko lepoak.**

**Zierbenako portuan planta bat eraiki nahi du Petronorrek, arriskutsutzat jotzen diren erraustegietako hondakinak eraldatu eta eraikinetan eta obra publikoetan berrerabiltzeko.**

**Epai euskarafoboei eginiko kritikak ETarekin lotu ditu Juan Luis Ibarra EAeko Auzitegi Nagusiko presidente ohiak; "epaileei zilegitasuna kentzeko kanpainekin" lotu ditu.**